ASMOZ TA JAKITEZ
ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA

2006 abendua/diciembre/décembre
Nº 173 zenb.

# Eusko Ikaskuntza guztiz emana euskararen alde

**La asociación Artaburu Euskaltzale Elkartea, de Mar del Plata (Argentina), se adjudicó el ENE SARIA 2006, en una edición que contó con la participación del cantautor Benito Lertxundi quien compuso una canción a petición de Eusko Ikaskuntza**

Euskararen Nazioarteko Eguna (ENE) izan da Eusko Ikaskuntzaren aurtengo mugarri garrantzitsu bat elkartearen jarduera egitarauan. Iaz egin zuen bezala, Eusko Ikaskuntza indartsu agertu da abenduaren 3ko ospakizunera, ekintzen katea lehenago hasi bazen ere.

Zalantzarik gabe, aurtengo kate mailarik deigarriena Benito Lertxundik, Eusko Ikaskuntzak eskatuta, ENErako konposatutako abestia izan da. Azaroaren 15ean medioen aurrean aurkezpena egin zenetik entzungai egon da elkartearen web orri desberdinetan eta nahi izan duenak bere ordenadorera jaitsi ahal izan du kanta. Abenduaren 3 bitartean 7.000 baino gehiago izan dira abeslari oriotarraren abestia entzun dutenak eta 4.000 inguru hura eskuratu dutenak. Bideoa ikusi, berriz, bi milatik gora egin dute.

Bestalde, ENE Sariaren lehen edizioan iragarpenak bete egin dira. Hamahiru hautagai agertu ziren Sarira eta epai mahaiari zail gertatu zitzaion erabakia hartzea, denek merituhandia baitzuten euskararen sustapen lanetarako daramaten ahaleginean. Azkenik, Mar del Platako Artaburu Euskaltzale Elkartea izan da irabazlea eta berak eramango du 2006ko garaikurra.

Eusko Ikaskuntzak garatu ekintzen oihartzuna bost milioi pertsonarengana heltzea zen helburua aurtengo kanpainan eta lantegi horretan bikain lagundu dute Euskosare-ko Irratia komunitateak eta Mintzabidea zein Mintzalagunak komunikabideek ere. Euskosare-ren bitartez ere ailegatu da informazioa munduko zenbait egunkari eta astekaritara, ENE-ren eta euskararen berri eman dutenak. Emaitzaren azken balantzea oraindik guztiz zehaztu gabe dagoen arren, oso positiboa izan da.

Eusko Ikaskuntzak beste harri bat jarri du 2006an, nazioarteko komunitatean euskarak izan behar duen eraikinean. ENE-ren 2007ko programazioan ari da jadanik elkartea, Euskararen Eguna sortu zuten Eusko Ikaskuntzako eragileen asmoa ahaztu gabe: euskarak eguneroko ahalegina behar du.



*Donostia, 06-XI-15. Benito Lertxundi, abeslaria, Javier Retegi, Eusko Ikaskuntzako Lehendakaria, Josemari Velez de Mendizabal, Eusko Ikaskuntzako gerentea.*

## Artaburu Euskaltzale Elkartea

L'association Artaburu Euskaltzale Elkartea appartient au Centre Basque "Denak Bat" de Mar del Plata (Argentine) et offre, depuis 1973, une série de cours d'euskera. Elle réalise, de plus, des activités complémentaires, quelques-unes permanentes et d'autres plus ponctuelles.

Il faut souligner l'effort réalisé pour la diffusion de la langue et la culture basques dans la société environnante au moyen de quelques-unes de ces activités complémentaires: la revue *Euskara Denontzat*, le programme radiophonique *Présence Basque*, la Semaine de l'Euskara, les Activités pour les Enfants, la Rubrique Thématique de l'Euskara, etc.

Elle participe également activement à diverses initiatives générales: *Mintzabidea* (Euskosare), *Argentinan euskaraz*, *Gaztemundu*.

Le projet développé par Artaburu Elkartea concernant l'euskara est riche et abondant, en tenant compte de la grande distance et du difficile contexte dans lequel il a été réalisé. Le jury souligne cette qualité qui correspond à tous les candidats, et qui fait l'éloge du travail de toutes les associations.

**Bideoklipa**

Andrés Espinoza, Zinematografia Saileko Lehendakariak egin zuen Benito Lertxundik ENErako konposaturiko musika temaren bideoklipa, hainbat telebista kanaletan proiektatu dena, bai eta abenduaren 3an Donostiako Kursaalean egin zen Euskararen Nazioarteko Eguneko ekitaldi ofizialean ere.

# ENE Benito Lertxundik egindako abestia

Euskara giza ondarea da: komunikazio / eta batasunerako tresna. / Elkar ulertu eta giza helburu gorenera heltzeko beharrezko baliabidea.

Hizkuntzak lehuntzen du animalia eta / gizon bilakatzen. / Berak bideratzen elkar laguntza giza / mailan gauzatzeko. / Zentzu horretan hedatzen da herri bakoitzaren beharretara.

Hizkuntza ispilu leiala da, / non kondairan zehar, herri baten / baldintza sozialak isladatzen diren.

Hizkuntzak jakinarazten dio belaunaldi bakoitzari oinarrizko kultura guztia.

Bere hizkuntzarekin hautsi duen herriak tradizioa du errausten eta arima / epeltzen.

Hizkuntzak bere baitan, herri baten / mundua ulertzeko era gordetzen du, herritarrek hitzegiten dutenean.

Euskara, gure hizkuntza, giza ondarea / da.

El euskara es patrimonio humano: herramienta / de comunicación y unidad. / Recurso necesario / para entenderse y / llegar al más alto ideal humano.

La lengua / perfecciona al animal / y lo hace hombre. / Ella encauza la ayuda mutua para que se realice en el plano humano. / En este sentido se extiende / a las necesidades / de cada pueblo.

La lengua es espejo fiel, / en el que se reflejan / las condiciones sociales / de un pueblo / a través de la historia.

A cada generación / la lengua enseña / toda la cultura básica.

Pueblo que rompe / con su lengua / es pueblo que destroza su tradición y enfría su alma.

La lengua guarda en sí / el modo de entender / el mundo de un pueblo, cuando sus naturales la hablan.

El euskara, nuestra lengua, es patrimonio / humano.

L'euskara est un patrimoine humain: un outil / de communication et d'unité. / Ressource nécessaire / pour s'entendre et / atteindre l'idéal humain le plus élevé.

La langue / perfectionne l'animal / et le fait homme. / Elle canalise l'aide mutuelle pour qu'elle se réalise sur le plan humain. / Elle s'étend dansce sens / aux nécessités / de chaque peuple.

La langue est le miroir fidèle, dans lequel se reflètent / les conditions sociales / d'un peuple / à travers l'histoire.

A chaque génération / la langue enseigne / toute la culture de base.

Un peuple qui rompt / avec sa langue / est un peuple qui détruit sa tradition et refroidit son âme.

La langue garde en soi / la façon de comprendre / le monde d'un peuple, lorsque ses natifs la parlent.o.

L'euskara, notre langue, est patrimoine / humain.



**Canción**

La dirección para bajarse la canción compuesta por Benito Lertxundi es: www.euskomedia.org

www.eusko-ikaskuntza.org / www.euskonews.com

# Hizketan eta gogoetan

*Novembre a été un mois prodigue en ce qui concerne les Journées, les conférences et les causeries, avec un bilan très satisfaisant tant pour la qualité des rencontres que pour leur niveau de participation.*

## Foruak, Ordenantzak

Eusko Ikaskuntzako Historia eta Geografia Sailak antolaturik, azaroaren 29 eta 30ean Tokiko Historiaren IX. Jardunaldiak egin ziren Gasteizen, *Tokiko foruetatik udal ordenantzetara Euskal Herrian* izenburupean. Jardunaldiok zenbait gai aztertzeko bide eman zuten: hiriak sortzeko foruak ematea ekarri zuen testuinguru historikoa, bai eta udal ordenantzak agertzea eta horien bilakaera ere, forua gainditzeko tresna moduan eta res publica kudeatzeko mekanismo gisa. Bi txosten irakurri eta hamabost komunikazio aurkeztu ziren Historia eta Zuzenbidean aditu zirenen ardurapean.

## Sur la danse souletine

Le samedi 11 novembre Eusko Ikaskuntza, avec le soutien de l'Institut Culture Basque et la mairie de Barcus, a organisé tout une journée autour de la danse souletine.

Jean-Michel Bedaxagar, le dernier maître à danser issu de la tradition militaire, a su communiquer toute la passion qu'il vouait à ces traditions populaires. En projetant des diapositives sur les carnavals en Pays Basque mais aussi en Europe, Thierry Truffaut a montré le côté universel de nos mascarades souletines. Mixel Etxekopar et Patrick Queheille ont aussi évoqué les évolutions de la danse.

**Proyecciones**

Durante la Jornada sobre la danza suletina se proyectaron películas filmadas entre 1962 y 1976.



## Manuel Vilas

La Vicepresidencia de Eusko Ikaskuntza por Bizkaia, dentro del programa "Bizkaia Forum" que viene ofreciendo actividades culturales a todo lo largo del año, organizó el 20 de noviembre la charla *Poesía y Realidad* a cargo del poeta y narrador aragonés Manuel Vilas, uno de los nuevos escritores más relevantes en lengua castellana.



Como poeta, entre sus últimos libros hay que citar: *El Cielo*, la antología *El Nadador* y *Resurrección*. Como narrador ha publicado el libro de relatos *Zeta*, que obtuvo el Premio Saputo de las Letras Aragonesas al mejor libro de escritor aragonés publicado en el año 2002, y la novela *Magia*.

## Alimentación sana

La Sección de Ciencias de la Salud de Eusko Ikaskuntza organizó el 9 de noviembre en Vitoria-Gasteiz las VI Jornadas Salud y Sociedad, que versaron sobre *Nutrición y Dietética: Alimentación Saludable*, y giraron en torno a tres mesas: *Alimentación saludable en la infancia*; *Alimentación en el enfermo renal*; *Alimentación, imagen corporal y salud*. Estas Jornadas han sido reconocidas oficialmente por el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.



## Kontzertu Ekonomikoa

Euskal autogobernuaren funtsa den Kontzertu Ekonomikoaren onarpenaren XXV. urteurrena dela eta, Eusko Ikaskuntzak, Sabino Arana Fundazioarekin batera, hitzaldi ziklo bat antolatu zuen Gasteizen urriaren 19an eta 26an, eta azaroaren 2an. Izan ere, joan den ekainean Eusko Ikaskuntzaren eta Sabino Arana Fundazioaren arteko lankidetza hitzarmena sinatu ondoko lehen jarduera izan da ziklo hori. Hitzarmenaren helburua: "Elkarlana eta elkarri laguntzea jarduerak antolatzen Arabako Lurralde Historikoan, jarduera horiek interes kultural, historiko eta sozialeko hitzaldi, mintegi eta jardunaldiak izango direlarik".



## Charla en Lumbier

El 25 de noviembre en el Centro de Interpretación de la Naturaleza de Lumbier, Antxon Aguirre Sorondo ofreció una charla sobre *La nieve y los neveros*.

Organizado por el Ayuntamiento de Urraul Bajo y Eusko Ikaskuntza, el acto consistió en una proyección audiovisual comentada sobre la utilización de la nieve por parte de los seres humanos desde la prehistoria hasta nuestros días, y especialmente centrada en Navarra y sus neveros.

El acto contó con buen nivel de asistencia, y particularmente con la presencia de representantes de grupos que están trabajando en la recuperación de neveros en Lumbier.

# Par accord

*Los convenios de colaboración de Eusko Ikaskuntza hacen posible un amplio catálogo de realizaciones a lo largo del año y por toda la geografía donde tiene presencia la cultura vasca.*

## Argentinan

José Mª Rodríguez Ibabe, Zientzia Fisiko-Kimikoak, Matematika eta Teknolgia Saileko Lehendakaria Argentinan bi hitzaldi egitera gonbidatu zuten. Azaroaren 3an, Buenos Airesko Euskaltzaleak erakundean *Zientzia eta Euskara* gaiaz hitz egin zuen, eta 7an *Enpresaren munduaren eta ikerketa jardueraren arteko harremanak teknologia guneetan eta unibertsitateetan: euskal esperientzia* gaiari buruz, San Nicoláseko Merkataritza eta Industria Federazioan.



## Digitalizazioa

*Boletín de la Comisión de Monumentos de Navarra* digitalizatu eta Sarean jartzeko lankidetza hitzarmena sinatu zuten Donostian Juan Cid Caja Laboral-Euskadiko Kutxaren ordezkariak eta Josemari Velez de Mendizabal Eusko Ikaskuntzako gerenteak. Eginkizun hori bere gain hartuko du Eusko Ikaskuntzaren Euskomedia Fundazioak. 1895, 1910-1920 eta 1934-1936 urteetan argitaraturiko 24 liburukik (7.804 orri) osatzen dute bilduma hori.



## Erakusketa Oiartzunen

Azaroaren 27tik abenduaren 14ra, herriko historia gaia duen atzera begirako erakusketa bat hartzen du Oiartzungo Udal Areto Nagusiak. *Oiartzun Agirian / Descubriendo Oiartzun* izenburuko erakusketa honetan Bailarako iraganari buruzko balio historikoa duten hainbat dokumentu aurkezten dira. Horrekin batera, bost hitzaldiko ziklo bat garatzen ari da adituen ardurapean, Oiartzunekin zerikusia duten hainbat gairi buruz.

## En Estella-Lizarra

Manuel de Irujo, además de un destacado político navarro, fue miembro activo de Eusko Ikaskuntza a cuya Junta Permanente perteneció desde 1934. En el vigésimoquinto aniversario de su fallecimiento, su localidad natal, Estella-Lizarra, acogió durante el mes de noviembre una exposición con fondos de Eusko Ikaskuntza que hace repaso a la trayectoria política, dipomática, humanitaria y cultural del que fuera ministro de la II República española.

# Niños del 36

*Educación pública y educación religiosa: programas educativos y proceso de aprendizaje del euskera en las colonias francesas durante la Guerra Civil española*. Este es el título del proyecto de investigación que ha obtenido la beca convocada con motivo de los 70 años de las evacuaciones de niños del País Vasco. La becaria, Virginia López de Maturana, licenciada en Historia por la UPV/EHU, realizará un estudio comparativo entre la educación impartida por religiosos y por las instituciones publicas a niños vascos exiliados.

# Prix Bayonne

Les Prix Eusko Ikaskuntza-Ville de Baiona 2006 ont leurs gagnants. Le jury, réunit le 20 novembre, a décidé de décerner le Prix d'Honneur Culture Basque à Michel Duvert, ethnologue. Le Prix Culture Basque (aide à la recherche) a été décerné à Zoé Bray, anthropologue, pour sa thèse d'anthropologie sur l'étude de la frontière Bidasoa-Txingudi. Enfin, Denis Laborde, musicologue, recevra le Prix Spécial Culture Basque pour son remarquable ouvrage en français sur le bertsularisme. Les prix vidéo documentaires ont été déclarés vacants.

**Michel Duvert**

Historialari, etnologo, irudigile eta marrazkilariari eman diote Euskal Kulturaren Ohorezko Saria.



*El 27 de noviembre la sede central de Eusko Ikaskuntza recibió la visita de una comisión de la STEPFOR +, red de empresas de turismo y entes culturales de la región de Pella, en Macedonia Central (Grecia). Su deseo era conocer la naturaleza, historia y actividades de Eusko Ikaskuntza así como la posibilidad de establecer vínculos de colaboración.*

**Oferta Fin de Año**

Cuatro juegos didácticos en cd, a 20€.

## Gabonetarako opariak

"Ikasi Jolastuz Bilduma"

LAU CD DIDAKTIKO

Euskal Historiaurrea, Erromanizazioa, Erdi Aroa 1 eta 2

CD bakoitza

10€

edo

4 CD-ak

20€

**Eskaerak: denda@eusko-ikaskuntza.org**
**edo Eusko Ikaskuntzaren bulegoetan**

# Ikerketarako bekak

*Junto con las Becas Angel de Apraiz y Agustín Zumalabe, creadas en 1983, se convocan otras dos juntamente con el Institut d'Estudis Catalans y la Universidad de Ginebra.*

## Apraiz eta Zumalabe

**Otsailaren 28a arte*

2007. urteko Angel Apraiz Bekaren deialdiari dagozkion diziplinak ondokoak dira: Arte Plastiko eta Monumentalak, Zinematografia eta Musika.



Agustin Zumalabe Bekak, aldiz, ondoko alorretako ikerketak bultzatuko ditu: Natur Zientziak, Hezkuntza, Folklorea, Osasun Zientziak, Zientzia Fisiko-Kimikoak, Matematika eta Teknologia.

Beka biek urtebeteko iraunaldia izango dute eta 4.600 euro gordin izango dira horien diru kopurua.

Interesa dutenek memoria txosten bat eta beren curriculuma aurkeztu beharko dituzte, Eusko Ikaskuntzaren web orrian aurkituko dituzten inprimakiekin batera, otsailaren 28a baino lehen.

## Beca para Cataluña

**Jóvenes investigadores*

Eusko Ikaskuntza y el Institut d'Estudis Catalans conceden un año más sendas becas a la investigación dirigidas a jóvenes investigadores interesados por algún aspecto concreto tanto de la cultura catalana como de la vasca. Tendrán preferencia los proyectos para estudios comparativos entre ambas culturas. El importe de la beca convocada por Eusko Ikaskuntza es de 3.600 euros, y corresponde al pago de gastos de estancia de tres meses en alguna zona catalanoparlante. Los candidatos habrán de ser licenciados o graduados en facultades universitarias o centros de enseñanza superior en los últimos diez años. El 15 de marzo de 2007 concluye el plazo de admisión de propuestas.

## Université de Genève

**Sciences de l'Education*

Eusko Ikaskuntza et l'Université de Genève, dans le cadre de leur accord de collaboration, offrent une bourse pour que des docteurs ou des candidats au doctorat dont les thèses se trouvent dans une phase très avancée développent dans cette Université une recherche liée aux sciences de l'éducation, avec une attention toute spéciale aux processus d'acquisition et d'apprentissage des langues, en qualité d'*Hôte de relations internationales*. La dotation économique de la bourse sera de 2.116 euros par mois. Le délai d'admission des sollicitudes se termine le 15 mars 2007.

# Perspectiva 2007

*L'année 2007 débutera par un colloque sur l'aménagement du territoire, et se poursuivra avec des hommages à Micaela Portilla et Joxemartin Apalategi, éminents chercheurs récemment décédés.*

## JM. Apalategiren Oroimenez

**Antropologia*

Otsailaren 15ean, Donostian, omenezko jardunaldi bat egingo da otsailean zendu zen Joxemartin Apalategi, Antropologo eta 1991-1993 bitartean Gipuzkoako Eusko Ikaskuntzako Lehendakariorde izandakoaren oroitzapenean.

Eusko Ikaskuntzako Gipuzkoako Lehendakariordetzak, elkarteko Antropologia-Etnografia Sailak eta EHUko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Sailak antolaturik, bi ekitalditan banatuko da jardunaldia: goizean, adituen eta ikasleen arteko bilkura Donostiako EHU Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean; arratsaldekoa publiko zabalagoarentzako ekitaldia da eta Miramar Jauregian egitekoa da.

## Micaela Portilla

**Jornadas congresuales*

En honor a Micaela Portilla Vitoria, quien fuera socia de Eusko Ikaskuntza y Premio Manuel Lekuona a su trayectoria de investigadora en 1997, se van a programar diversos actos en Vitoria-Gasteiz entre los días 21 y 24 de febrero, promovidos por Eusko Ikaskuntza y la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País. Por una parte, unas Jornadas congresuales harán repaso a las aportaciones de Micaela Portilla en los diferentes ámbitos de conocimiento: Patrimonio, Geografía, Historia y Arquitectura alavesas.

Paralelamente, se presentarán exposiciones sobre la investigadora y las devociones marianas en Alava, y fotográficas.

## Territoires et espaces

**Journées transfrontalières*

Un colloque aura lieu à la Faculté Pluridisciplinaire de Bayonne les 18 et 19 janvier organisé par la Section d'Anthropologie d'Eusko Ikaskuntza et le Centre d'Etudes Basques sur le thème *L'aménagement du territoire et la gestion des espaces au Pays Basque*. Coordonnées par le Président de la Section d'Anthropologie, seize exposés seront présentés au cours de ces deux journées, abordant des aspects relatifs à l'organisation des espaces tant dans la Basconie péninsulaire que dans la continentale, Juan Antonio Rubio-Ardanaz, combinant les réflexions générales avec l'exposition d'aspects particuliers.

## Antzuolako Alardea

**Gogoeta soziokulturala*

Azaroaren 29an, *Antzuolako Alardearen iragana, oraina eta etorkizuna* proiektua aurkeztu zen Antzuolan. Eusko Ikaskuntzak, Gipuzkoako herri horretako Udalarekin batera, Mairuaren Alardea biziberritzeko abiaraziko duen ekitaldi multzo batek osatzen du proiektu hori. Aurkezpen ekitaldian adierazitakoaren arabera, hasiera batean inkesta bat zuzenduko zaie bertako elkarte eta taldeei, bai eta partikularrei ere, jai gertaerari buruz. Inkesta hori Antzuolako Alardearen iraganari, orainari eta etorkizunari buruzko azterketa baten oinarria izango da. Hori Euskal Herriko Alardeei buruzko gogoeta mintegi batekin osatuko da.

**Estudio sociocultural**

el que se va a desarrollar sobre el Alarde del Moro de Antzuola, seguido de un Seminario sobre los Alardes vascos.

## Agenda

**Abendua / Diciembre / Décembre**

- 2: Donostia. Jornada de Música
- 3: Euskararen Nazioarteko Eguna
- 11: Fin de admisión a la beca sobre Alfonso Ugarte
  Reunión de la Sección de Ciencias de la Salud. Donostia
- 12: Hernani: *Aviraneta, un conspirador guipuzcoano*
- 14: Donostia: *Aviraneta, un conspirador guipuzcoano*
  Reunión de la Sección de Artes Plásticas y Monumentales. Vídeoconferencia
- 15: Comité Ejecutivo. Iruñea
  Junta Permanente. Iruñea
- 16: Baiona. Conférence de X. Arbelbide
- 21: Bilbao. Encuentro con socios de Bizkaia
  Baiona. Entrega de los Premios Eusko Ikaskuntza-Ville de Baiona

**Urtarrila / Enero / Janvier**

- 18-19: Baiona. *L'aménagement du territoire et la gestion des espaces au Pays Basque.*
- 25: Donostia. Encuentro con los socios de Gipuzkoa

**Otsaila / Febrero / Février**

- 6: Reunión de Presidentes de Sección
- 15: Joxemartin Apalategiren Oroimenez
- 21-24: Homenaje a Micaela Portilla Vitoria. Jornadas In Memoriam
- 28: Fin becas Apraiz y Zumalabe

**Martxoa / Marzo / Mars**

- 15: Fin becas para Cataluña y Universidad de Ginebra

# Salvaguardando los núcleos históricos: 'Atlas de villas medievales de Vasconia'



**Beatriz Arizaga Bolomburu**

*Directora del Proyecto "Atlas de Villas Medievales de Vasconia". Socia de Eusko Ikaskuntza*

≠ La obra *Atlas de Villas Medievales de Vasconia* se compone de varios volúmenes que irán saliendo a la luz progresivamente. El primero, dedicado a Bilbao y Bizkaia ya está en los estantes. Ello es el resultado del Proyecto de Investigación llevado a cabo por un equipo de Historia Medieval de la Universidad de Cantabria compuesto por los historiadores Lorena Fernández González y Sergio Martínez Martínez, y dirigido por quien escribe. Dicho Proyecto fue subvencionado por el Gobierno Vasco durante el trienio 1997-1999 a través de las líneas prioritarias de investigación propuestas por la Sociedad de Estudios Vascos-Eusko-Ikaskuntza.

El objetivo primordial de la investigación fue la propuesta de Recuperación del Paisaje Urbano Medieval de las villas vascas, en la conciencia que tenemos los investigadores de la fragilidad de estos modelos de ocupación urbana que han pervivido dignamente desde su fundación en época medieval, (ss.XII-XIV), hasta la primera mitad del s. XX, sufriendo en las últimas décadas de este siglo y primeros años del s. XXI, transformaciones, de una envergadura tal, que hacen muy difícil el reconocimiento del núcleo histórico.

Lo que hemos percibido en los últimos tiempos es una destrucción importante de la villa medieval, por dicha razón nos hemos propuesto "salvaguardarla" dándola a conocer y reconstruyendo su imagen histórica. Nos hemos propuesto obtener una información precisa sobre la villa medieval vasca, que pueda llegar a los urbanistas, restauradores y arquitectos, y que convenza a las autoridades de que es peligroso para una comunidad ignorar y destruir la experiencia colectiva de su pasado. Los documentos gráficos de carácter histórico: la iconografía y la cartografía antigua se han manifestado como una fuente informativa de primer orden. De inestimable valor han sido también las huellas de la imagen de las villas que se conservan en fondos fotográficos antiguos.

Además de la información obtenida de forma indirecta a través de los textos, iconografía y cartografía histórica, la observación directa del espacio urbano nos ha proporcionado una información inigualable y generalmente complementaria a la textual. La arqueología urbana tradicional nos ha informado, menos de lo que hubiéramos deseado, de las estructuras materiales de épocas muy antiguas, pero se ha recurrido a la arqueología de lo construido, la que fija su mirada en los edificios cotidianos de carácter histórico que aún permanecen en pie. Se ha comportado como una fuente de información de primer orden.

**«Gune historikoen hondamendia geldituko bada, beharrezkoak dira hiri paisaiari buruzko azterketa dokumentatuak»**

Finalmente, hemos considerado imprescindible para lograr el objetivo propuesto, confeccionar una cartografía específica, que fuera el reflejo gráfico del estudio que presentamos. En dicha cartografía, elaborada por el equipo de trabajo, se ubican los distintos elementos significativos de los que se habla en el texto. Al estudio y narración textual le hemos adjuntado todo tipo de elementos gráficos y cartográficos, existentes o confeccionados al efecto para que el lector no tenga graves dificultades para entender cómo fue la villa medieval, en muchos casos su propia villa.

La finalidad del desarrollo de esta metodología reside en la posibilidad de la aportación de estudios sobre la imagen de la ciudad o villa medieval que hoy día se ve amenazada.

La única manera de detener la destrucción de los núcleos históricos es ofertando estudios documentados sobre el paisaje urbano, que permitan conocer la realidad histórica y su relativo valor, y que estos estudios se conviertan en instrumentos de actuación.




## LIBURUAK

**Euskal hizkuntza komunitatearen bizindar etnolinguistikoa: Andoaingo, Arrasateko, Bergarako, Hernaniko eta Lasarte-Oriako Udaleriak**

USARRALDE, Ibon; MARTINEZ DE LUNA, Iñaki
Soziolinguistika Klusterra, 2004




Euskararen indar etnolinguistikoaren eta erabileraren arteko harremanean sakontzea du helburua liburu honek, Gipuzkoako Andoain, Arrasate, Bergara, Hernani eta Lasarte-Oria herriak harreman horren azterketa alortzat harturik. Ibon Usarralde eta Iñaki Martinez de Luna egileek euskararen erabileran eragina duten faktore guztiak biltzen dituzte, gizarte baldintzetatik hizkuntzak berak duen indarreraino. Hizkuntzaren ezagueraren eta horren erabileraren artean jauzi izugarria dela nabarmentzen dute, gero eta handiagoa gertatzen ari den zuloa. Andoainen eta Arrasaten izan ezik, aztertu diren gainerako leku guztietan bizkorrago hazten ari da hitz egiteko gai diren pertsonen kopurua ezen ez praktikan hitz egiten dutenena baino.

**Jolasgaria. Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak**

HERNANDEZ, Jone Miren
Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2005




Soziologiazko Euskal Koadernoak agerkariaren 16. aleak ondokoa hartzen ditu aztergai: euskararen, gazteen eta eskolaren arteko harremanak, eta gaztetxoenen identitatea eratzeko sorturiko hizkuntza dinamikak. Egileen kezka pertsonal baten ondorioa da liburua, kezka hori gogoeta akademikoa bihurtu dutelarik. Hona azterlanaren abiapuntua: eskola erreferentzia garrantzitsua da gaztetxoentzat/haurrentzat, horien erreferentzia gune soziala delako eta bertan protagonismo berezi bat lortzen dutelako. Ikuspegi antropologiko batetik, gelak eta gaztaroa elkarri loturiko kontzeptuak dira, eskola baita helduen mundura bideratzen duen erakundea.

**Argitaratzailea:** Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA. **Secretario Técnico de Publicaciones: Jose Angel Ormazabal.**- L.G.: SS-1056/92. ISSN 1133-9861. **Inprimategia**: Juaristi. Itziar
**Harpidetzak**: Asmoz ta jakitez etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:
**Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak:** Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA. Tel. 943-310855. Fax 943-213956. E-mail: ei-sev@eusko-ikaskuntza.org. **Arabako Bulegoa:** General Alava, 5-1º. 01005 GASTEIZ.Tel. 945-231552. Fax 945-148752. E-mail: gasteiz@eusko-ikaskuntza.org. **Bizkaiko Bulegoa:** María Díaz de Haro, 11-1. 48013 BILBAO. Tel. 94-4425287. Fax 94-4414650. E-mail: bilbo@eusko-ikaskuntza.org. **Nafarroako Bulegoa:** Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D. 31001 IRUÑEA. Tel. 948-222105. Fax 948-211737. E-mail: iruna@eusko-ikaskuntza.org. **Iparraldeko Bulegoa:** 51 quai Jauréguiberry. 64100 BAIONA. Tel. 559598290. Fax 559461844. E-mail: eusko-ikaskuntza1@wanadoo.fr. Ordutegia: Astelehenetik ostegunera 8:30etik 14:00etara eta 15:30etik 18:00etara; ostirala, 8:00etatik 15:00etara. Horario: De lunes a jueves de 8:30 a 14:00 y de 15:30 a 18:00 h.; viernes de 8:00 a 15:00 h. Baiona: Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 18:00 etara. Horaire: Du lundi au vendredi de 9:00 à 12:00 et 15:00 à 18:00 h.